

Kanguruak

Esploratzaile ingelesak Australiako kontinentera heldu eta kanguruak estreinakoz ikusi zituztenean, guztiz txunditurik geratu ziren. Sekula ikusi gabeko animalia ezezaguna ez ezik, zenbait animaliaaren atalez egina iruditu zitzairen: untxi burua zuen, txakur gorputza eta erbi hankak; gainera, poltsa baten barruan zeraman bere kumea eta, hori guztia gutxi balitz ere, salto-saltoka ibiltzen zen, igelak bezala.

Kanguruak jauziak eginez ibiltzen dira, aurreko gorputz adarrak atzekoak baino askoz laburragoak dituztelako.

Kanguru espezie anitzen artean mota eta tamaina askotakoak daude: batzuk bi metroko garaiera hartzera hel daitezke eta beste batzuk, aldiz, untxien tamaina bertsukoak dira. Nolanahikoak izanik ere, guztiek dute martsupialioen ezaugarri komuna, hots: emeek sabelean duten «martsupio» izeneko poltsa batean gordetzen dituzte beren kumeak.

Kanguru kumeek bi zentimetro inguru dituzte jaiotzean eta, hain txikiak izanik, zenbait hilabete eman behar izaten dute amaren poltsa barruan, ongi moldatzeko moduko tamaina eta gaitasunak lortu arte.



Defendatzeko, atzeko hankak erabiltzen dituzte kanguruek: isats sendo eta gihartsuaren gainean jarririk, hankak aurrerantz bultzatzen dituzte, ostiko ikaragarriak emanez. Kanguruen atzeko hanken atzaparrek azazkal gogor eta zorrotzak dituzte eta, beraz, kolpea benetan mingarria izaten da. Dena dela, kanguruak ez dira batere oldarkorak eta inor erasotzearen aldekoak; aitzitik, elikatzeko behar dituzten belarrak, hostoak eta fruituak erraz aurkitzen dituzte eta dute zertan borrokan ibili.

Australian kanguruak oso animalia maitatuak dira, hainbeste non bertako ezaugarri gisa ageri baitira ezkutu eta ikur ofizialetan. Gainera, kanguruak babesteko neurri zorrotzak hartu dituzte australiarrek.



Aukeratu erantzun zuzena.

- 1 Aukeratu esaldi honen bukaera. *Esploratzaile ingelesek kanguruak ikusi zituztenean...*
 - A. ...ez ziren batereharritu.
 - B. ...zenbait animaliairen nahasketa zirela iruditu zitzairen.
 - C. ...animalia hori ezaguna egin zitzairen.
 - D. ...Australiako kontinentetik alde egin zuten.
- 2 Zer animaliairen atalez eginda dago kangurua esploratzaileen iritziz?
 - A. Erbiaren buruaz, txakurraren hankez eta untxiaren gorputzaz.
 - B. Txakurraren buruaz, erbiaren hankez eta untxiaren buruaz.
 - C. Untxiaren buruaz, txakurraren gorputzaz eta erbiaren hankez.
 - D. Igelaren hankez, txakurraren gorputzaz eta untxiaren buruaz.
- 3 Zer da martsupioa?
 - A. Tamaina txikia duen kanguru mota.
 - B. Kanguru arrek sabelean duten poltsa.
 - C. Kanguru emeek sabelean duten poltsa.
 - D. Esploratzaile ingelesek erabiltzen zuten poltsa mota bat.
- 4 Zertarako erabiltzen dute kanguruek martsupio izeneko poltsa?
 - A. Janaria biltzeko.
 - B. Kumeak gordetzeko.
 - C. Ura eramateko.
 - D. Beren burua ezkutatzeko.
- 5 Nola egiten dute borroka kanguruek?
 - A. Isatsaren gainean jarrita, atzeko hankekin ostikoak emanez.
 - B. Aurreko hankekin ukabilkada gogorak emanez.
 - C. Ahoko hortz zorrotzekin haginka eginez.
 - D. Isats sendoarekin kolpe gogorak joz.

6

Aukeratu egia dena.

- A. Kanguruak ez ohi diote inori eraso egiten; ez dira oldarkorrak.
- B. Australian ez dituzte kanguruak batere maite.
- C. Australian kanguruak ez daude babestuta.
- D. Kanguruek elikatzeko hostoak eta fruituak aurkitzeko zailtasun handiak dituzte.

7

Zer testu mota da irakurgaia?

- A. Azalpen-testua.
- B. Albiste.
- C. Ipuina.
- D. Oharra.

8

Zein da testuaren helburua?

- A. Gertatu den zerbaiten berri ematea.
- B. Gai baten inguruko azalpen zehatza ematea.
- C. Pertsonaia baten bizitzaren nondik norakoak kontatzea.
- D. Norbaiti zerbait gogoraraztea.

9

Aukeratu egia dena.

- A. Testuan egilearen iritzia azaltzen da.
- B. Testuan ez da inoren iritzia azaltzen.
- C. Testuan irakurleek iritzia ematen dute.
- D. Testuan zientzialarien iritzia azaltzen da.

10

Non erabiltzen dute kanguruaren irudia ikur gisa Australian?

- A. Esploratzaileen armarrarian.
- B. Australiako armarrarian eta ikur ofizialetan.
- C. Harategietan.
- D. Kiroldegietan.